


EUSKAL ESAERA ZAHARREN IRAKURKETA PUBLIKOA


**Gotzon Garateren
ATSOTITZAK liburutik**

Elgoibar, 2010-10-08



ANTOLATZAILEAK

Elgoibarko Izarra elkartea eta Udala,
KUTXAren eta DANOBAT kooperatibaren
babesarekin.



EKINTZAREN HELBURUA


Gotzon Garate hil zeneko
2. urteurrenean, Gotzonen
“Atsotitzak” liburuan berak
jasotako esaera zaharrak
irakurtzea.

EUSKAL ESAERA ZAHARREN IRAKURKETA PUBLIKOA

Gotzon Garateren *ATSOTITZAK* liburutik

Urriak 8, ostirala Udaletxeko pleno-aretoan
Goizeko 09:00etan hasi eta arratsaldeko 19:00ak arte

600 elgoibartar behar ditugu
6.000 esaera zahar irakurtzeko.
Minutu 1 eta 10 esatera
zahar bakoitzak.



Animatu eta etorri esaera zaharrak irakurtzera!

943 74 16 26 (Elgoibarko Izarra)
943 74 43 66 (Udaleko Euskara Saila)

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com
euskara@elgoibar.org

Izena emateko azken eguna: irailak 24

Antolatzaileak:  

Babesleak:    

ANTOLAKETA

Ekitaldia baino hilabete lehenago, irakurketan parte hartzeko gonbita luzatu genien herritarrei.

Hori guztia kudeatzeko, antolatzaileek parte-hartzaile guztien zerrenda prestatu eta bakoitzaren ordua zehaztu behar izan zuten.

Parte-hartzaile bakoitzari 10 esaera zahar eman zitzaizkion, aurrez prestatu ahal izateko, eta ordu jakin bat ezarri zitzaion bere irakurketa saioa egiteko. Hauxe izan zen lanik zailena.

HERRITARREN ERANTZUNA

Erronka handia zen 600 lagun
mikrofonoaren aurrean jartzea baina
herritarren erantzuna paregabea izan zen.



EKITALDIA

Udaletxeko pleno-aretoan izan zen, urriaren 8an, goizeko 09:00etan hasi eta 19:00ak arte.



10 ordu eta 6.000 esaera

Hamar ordutan 6.000 esaera zahar irakurri ziren etenik gabe.

Esaerak, bozgorailu bidez, herriko plazan entzuteko aukera izan zen baita internet bidez zuzenean jarraitzeko aukera ere.

BALORAZIOA

Oso positiboa, herritarren harrera ezin hobia, hamar ordutan, etenik gabe, fin-fin pasa ziren parte-hartzaile guztiak irakurketa-txokotik.

8 urte zituen gazteenak; edadetuenak, berriz, 96 urte. Izaera eta pentsaera ezberdinak izan arren, horiek alde batera utzi eta guztiek bat egin zuten euskararekin.



EKITALDIAREN OIHARTZUNA

Ekitaldi polita izan zen eta oihartzuna izan zuen hedabide ezberdinetan: prentsa, irrati, telebista...

Elgoibarko herria, egun batez behintzat, esaera zaharrez janztea lortu genuen, eta bide batez, Gotzon Garateren lana ezagutzera ematea.



AMAIERA EKITALDIA

- Esaera zaharren irakurketa 19:00etan bukatu zen puntu-puntuan. Gotzonen etxekoak izan ziren azkenak irakurtzen, bere anaia Jenarok esker oneko hitzak izan zituen aretoan bildu zirenentzat. Ekitaldiari bukaera emateko, bideo batean Gotzonen irudia ikusi eta bere hitzak entzuteko aukera izan zuten bertaratutako guztiek.



bideoa

barren